

Senpertarra naizela...orok badakite....

(Kantu zahar herrikoia)

Gure herria izendatzeko, guk, ttiki ttikitik, "Senpere" izena entzun dugu gure aitaxi eta amatxien gandik, eta, orai, ere, senpertar euskaldunek, eta, beste senperen bizi direnen gehienek ere, gure herria horrela izendatzen dugu.

Senpere izena, "Sen Per" Okzitandar hitzetik datorrela erraten da, baina dirudiz okzitandar hitz hori euskararatua izan da, eta, "Senpere", noizbait, bilakatua.


Euskaraz, herri izen asko, "e" bokala batekin bururatzen dira, bereziki azken kontsonante batekin direnak: Azkain-Azkaïne, Doniban-Donibane, Uztaritz-Uztaritze, Miarritz-Miarritze, Urepel-Urepele, eta, beraz: Senper-Senpere. Euskararen berezitasuna da, bereak ez dituen hitzak, hainbat hitz latinezko, kelto, arabiar, frantses, berdin okzitandar, arazorik gabe

euskararitzen jakin duela

Ainitz mendez, ere, ez baitzen dokumentuetan euskaraz idazten, (Lehen liburua Bernat Etxeparek idatzi zuen 1545 urtean) asko manera erabili dira "Senpere" idazteko, latinez, gazteleraz, okzitandarrez eta bistan dena: frantsesez. Demagun, "Saint Pée sur Nivelles", orai hainbat aldiz erabiltzen duguna, 19 garren mendearen erdian arraroki ikusten zen idatzirik. Bere erabilera ofiziala Herriko etxeko "Etat civil" dokumentuetan hasi zen 1912 urtean, beraz duela 100 urte xuxen, eta "Saint Pée Sur Nivelles" izenarekin zaukan zigiluaren lehen erabilera, bakarrik, nere jakinean, 1923 urtean agertu zen. Erraten da, administrazio publikoak zuela hitz hori inposatu, beste Frantzia "Saint Pée" deitutako herri guzietan ez nahasteko (Saint Pée de Léren, Saint Pée d'Oloron, eta abar...) Gainera, aintzineko denboretan, duela 400 bat urte, gure herria oraino zeharkatzen duen 'ur haundiak', "Urdazuri" zuen izena, eta ez, nehondik ere "La Nivelles".

"Senpere" okzitan-euskaldundu izenak aldiz, baditu bederen 600 bat urte. Hori frogatzea, ez da erraza, ez baita, erran bezala, nehon, garai hartako euskaraz idatzitako dokumenturik, baina hala ere, geografiko eta historiko aztarna batzuek gako bat eman digute.

Jakin behar da, duela 640 urte, Gipuzkoatik etorririk, Pedro Amezketa zalduna ezkondu zela



Senpertarra naizela ...orok badakite..

"Que je suis "Senpertar", oui...beaucoup de personnes le savent" (vieux chant populaire)

Nous...depuis tout petit, nous avons appris de nos aïeux, que notre village s'appelait Senpere, et, même maintenant, tous ceux qui parlent la langue basque, et, aussi, beaucoup de ceux qui ne la parlent pas, souvent utilisent autour de nous cette même dénomination "Senpere" pour encore désigner notre village.

Il est notoire que le nom 'Senpere' vient du mot occitan "Sen Per", mais il est aussi évident que ce mot a été basquisé, et, est devenu "Senpere", car en Basque on ajoute la voyelle 'e', à tous les noms de village qui se terminent par une consonne, comme par exemple: Askain-Azkaïne, Biarritz-Biarritze, Uztaritz-Uztaritze...et donc Senper-Senpere...La langue basque a la particularité de pouvoir reformuler à sa façon le vocabulaire de ceux qui sont restés au contact de son domaine linguistique, comme les latins, les celtes, les arabes, les occitans etc....

Cependant, comme durant des siècles la langue basque ne s'est pas écrite (Le 1er livre écrit en basque par Bernat Etxepare date de 1545), plusieurs formulations ont été utilisées pour nommer notre village, en latin, en espagnol, en occitan et bien sûr en français. On peut savoir par exemple que la désignation "Saint Pée Sur Nivelles" que l'on exprime si souvent, aujourd'hui, n'est utilisée dans les écrits de la mairie que par ci par là à partir du milieu du 19^{ème} siècle, et, dans les documents officiels des registres de l'Etat civil que depuis 1912, donc tout juste il y a 100ans. Le premier tampon municipal ayant l'inscription de "Saint Pée Sur Nivelles" n'a été manié, à ma connaissance, que depuis 1923 seulement. Il se dit que c'est l'administration française qui a voulu ce-là, afin de ne pas confondre le nom de notre village avec d'autres "St Pée", comme par exemple: St Pée de Léren ou St Pée d'Oloron..De plus la belle rivière, qui, à l'heure actuelle traverse encore notre village, il y a 400 ans ne s'appelait pas, loin s'en faut, "La Nivelles" mais bien "Urdazuri"...

Quant à la dénomination occitano-basquisée de "Senpere", elle devrait avoir au moins 600 ans d'existence, si ce n'est plus. Il n'est pas évident de prouver ce-là, puisque comme nous avons déjà dit, il n'y a aucun document écrit en basque qui le mentionne, mais, cependant, quelques éléments géographiques et historiques nous donnent une clef pour le penser.

Il faut savoir qu'il y a 640 ans, venant du Gipuzkoa, le

1



Senpereko eremuen jabetza zaukan Joana Zaldúa alargunarekin. Hauek , bi seme ukan zituzten, bat, Juan, Senpereko jabetza ukan zuena, eta , bestea, Oier, Senpereren sortua, baina, Amezketako eskualdeaz jabe izan zena, bai eta ere, ezkontza baten ondorioz, Lazkaoko lur guzien nagusi . Harrigarria dena da Lazkaoko eremuetan dela aurkitzen auzo bat deitua "Senpere" , erreka bat ere daukana, izen berarekin, Beasainen mugetan.

Pentsa daitaie ez dela "Senpere" izen hori ametsetatik sortu , baduela zerbait ikusteko duela 600 bat urte Senpere eta Amezketakoen leinuek izan zituzten harremanekin .

Gainera, Juan , Senpereko jabe berri honen garaian zen , Senpereko gaztelua , 1403 urtean eraiki .(1)

Bestalde, oraino harrigarria zaukuna da, Senpereko ikura ere garai horretakoa dela. Duela 600 bat urte bezala, gure herriak bere ikuran dauka oraino panderoak eta marra batzu , 'paloak ' deitzen direnak (Ikusi gainean diren bi ikurak) . Horiek, Pedro Amezketarrarenak ziren, Elvira Asteiz Oinaz Loiola-koa, bere amaren leinuaren partetik ukanak .

Izena ... gaztelua... ikura ...! Historikoki, hauk guziekin, pentsa dezakegu gure herriaren sustrai euskaldun premiatsu batzuetarik urbil urbil garela !

Bai erran dezakegu, zalantza haundirik gabe, "Senpere" izenarekin gure herriak, bere nortasunaren ageria erreglan duela ! Ez lukela beste identiterik behar !

Auxtin Zamora

Ikerketen iturriak :

- "Bienandanzaz e fortunas" Lope Garzia Salazar (1399-1476)
- "Gipuzkoako Dorretseak eta Leinuak" F. Borja de Aguinálde
- "Heraldica y Personajes" .- Amezketako Udala
- "Armorial des Communes du Pays Basque " Guy Ascarat Ohar bat(1) (Senpereko gaztelua , Frantsesek , 1453 urtan erre zuten , gerozago , 1490 urtean ber- eraikia izan zen , eta , azkenik Gaztelarrek , 1793 urtean , berriz ere , erre zuten. Geroztik, emeki , emeki doa lurrera)

Seigneur Pedro Amezketa s''était marié avec Joana Zaldúa , hériitière de la Maison noble de "Sen Per", de notre village . Ensemble , ils eurent 2 fils, dont l'un, Juan, devint à son tour hériitière de la Maison noble maternelle de "Sen Per" , et, l'autre, Oier, de la Seigneurie paternelle d'Amezketeta , ainsi que , suite à une union matrimoniale, de celle de Lazkao en Gipuzkoa. Ce qui est étonnant dans tout cela, c'est que parmi les terres de Lazkao se trouve un petit territoire qui se nomme : "Senpere" . avec un ruisseau du même nom à la limite de Beasain.

On peut penser que la dénomination de ce 'Senpere'-là n'est pas venue comme par enchantement, qu'elle a une relation évidente avec ce qui s'était passé , il y a environ 600 ans entre la lignées de la Seigneurie de "Sen Per" , et , celle d'Amezketeta-Lazkao !

De plus , l'histoire nous rapporte que le Château de "Senpere" fut érigé vers 1403, époque même où la famille d'Amezketeta s'est établie dans notre village .(1)

Et, ce qui est aussi encore très étonnant , c'est que le blason de "Senpere" , est de l'époque de l'arrivée même de Pedro d'Amezketeta chez nous .. Comme il y a environ 600 ans, notre blason contient encore les mêmes chaudrons et pals de l'écusson de Pedro d'Amezketeta , ceux-là même qui lui venaient du blason de la famille de sa mère: Elvira Asteiz Oinaz de Loiola, famille de Saint Ignace .(voir ci-dessus les blasons en illustration)


Une dénomination ...un château...un blason...Nous pourrions bien penser qu'historiquement , nous sommes ici tout près des origines de "Senpere" et qu'il faudrait peut être mettre en adéquation, l'histoire et l'oralité populaire des 'Senperetar', en décrétant que le nom d'identité de notre village est bien 'Senpere'

Auxtin Zamora

- Sources historiques '- "Bienandanzaz e fortunas" Lope Garzia Salazar (1399-1476)-
- "Maisons Tours et lignages du Gipuzkoa" -F. Borja de Aguinálde
 - "Heraldica y Personajes" .- Municipalité d'Amezketeta
 - "Armorial des Communes du Pays Basque " de Guy Ascarat

Nota bene(1) Le château des Amezketa- Senpere , fut brûlé vers 1450 par les Français , reconstruit vers 1490 et re-brûlé en 1793 par les Castillans. Depuis lors, il tombe en ruine tout doucement





F Saint Pée (armes datant de la fin du 12^e siècle). Les chaudrons (que l'on retrouve souvent sur les armoiries du Pays Basque sud) signifient peut-être que le village est riche et prospère. Saint-Pée possède un château qui est le siège du bailli, représentant le roi de France. Les bandes jaunes verticales seraient la représentation de pals (fortifications en bois).

